



KONPrometituriK Jarraitzeko KONPromisOa

Eta konpromisoz konpromiso iritsi gara 2025-2026 ikasturtearen amaierara. Hilabete hauei agur esaten diegu, abenturak, bizipenak, pozak eta une ahaztezinak partekatu ondoren, izan ditugun zailtasunak gaur egun atzean uzten lagundu baitigute. Baina ezin dugu agur esan salletar familia handi honetako kide garen guztiok misioarekin, hezkuntzarekin eta gizarte-eraldaketarekin dugun konpromisoari balioa eman gabe. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi, badakigulako zuen onena eman duzuela egunero, ilusioz, dedikazioz eta dena emanez.

Salletar hezkuntza-obra bakoitzari bizia ematen dioten pertsonak dira gure konpromisoaren jarraibiderik handiena. Eskerrik asko hezitzaileei, irakasle nahiz ez-irakasle, bokaziotzat duten lanarekin konprometitzen baitira. Eskerrik asko txoko bakoitza alaitasunez betetzen duten eta erronka bakoitza gainditzeko konpromisoa hartzen duten ikasleei, laguntasuna eskaintzen dietenengan eta urratsetan gidatzen dituztenengan konfiantza jarri. Eskerrik asko gure proiektuarekin konprometitzen diren familiei, bizitzarako hezkuntzaren aldeko apustua eginez.

Eskerrik asko behartsuen eta zaurgarrien direnei begiratzen dietenei, mundu bidezkoago eta solidarioago baten alde lan egiteko konpromisoa hartzen baitute. Eskerrik asko gure elkarteetako kideei, gure misioarekin konprometitzen baitira eta senidetasunetik, fedetik eta zerbitzutik bizi baitute.



Eta La Salleko Joan Bautista gure fundatzailearen hitzekin, atsedenaldiriorientsua opa dizuegu, baina datorren ikasturteari begira gure konpromisoari eutsiko diogula azpimarratuz:

“Jainkoak, zeinek gauza guztiak jakinduriaz eta leuntasunez gobernatzen baititu, eta ez baititu gizonen joerak behartzen, nahi izan baitzuen nik hartu behar nuela eskolen zaintza erabat, ezin hautemanetzko moduan egin zuen eta denbora luzean; eta honela, konpromiso batek beste batera ninderaman, hastapenetan aurrez ikusi gabe”. (HM 6)

Atsedenaldi ON!

**Arlep Barrutiko
(Espainia eta Portugaleko)
Animazio Taldea**